

# ANTZINAROKO JAINKOEN MEMORIA ERDI AROKO IDATZIETAN

**Iker Garate Berasaluze**

Francisco Javier Muñoz Fernández-en tutoretzapean.

EHU/UPV-ko Artearen Historia eta Musika saila.

Artearen Historiako gradua.

2019/2020 ikasturtea.

## **LABURPENA**

Erdi Aroan forma klasikoek jarraikortasuna izan zutela ikusarazteko helburua du lanak, mitologia klasikoaren errepresentazioan zentratuz. Horretarako, testu astrologikoen irudi klasikoen kopia zuzenak aztertu dira, Karolingiarren eta Arabiarren kopiak alderatuz. Bestetik, Entziklopedia, Komentario eta Mitografien bitartez gai mitologikoen deskribapenetan oinarritutako irudikapenak aztertu dira. Honen bidez, mitologia klasikoa bide ezberdinetatik mantendu zela ikusarazi da, nahiz eta eraldaketa mota ezberdinak jasan zituen. Berpizkundek bereganatu zuen mitologia klasikoaren irudiak ez ziren zuzenean Antzinarotik eratorri, Erdi Aroan aldaketak jasan zituzten tipologiek ere eragin handia izan zuten.

**Gako-hitzak:** Mitologia Klasikoa, Erdi Aroa, Astrologia/Astronomia, Protoberpizkundera.

## AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	3
2. Mitologia klasikoaren mantentzea Erdi Aroan .....	5
3. Testu astrologiko/astronomikoen bitartez egindako eredu plastikoen kopiak .....	11
3.1. Testu astrologiko/astronomiko klasikoen garapena .....	11
3.2. Konstelazioen irudikapenaren bide ezberdinak .....	15
3.2.1. Karolingiarren estetikaren mantentzea .....	15
3.2.2. Islamiarren ikuspuntu zientifikoa .....	17
3.2.3. Berpizkunderako bidean.....	19
3.3. Ekialdeko planeten irudien asimilazioa.....	21
4. Testu deskriptiboen bitartez eginiko berreraikitzeak .....	27
4.1. Testu deskriptiboen garapena .....	27
4.2. Entziklopediak.....	29
4.3. Komentarioak .....	31
4.4. Mitografiak.....	35
5. Ondorioak.....	37
6. Iturri bibliografikoak .....	39
6.1. Liburuak .....	39
6.2. Artikuluak .....	40



## 1. SARRERA

Lan honetan Erdi Aroan zehar eginiko mitologia klasikoaren errepresentazio motak aztertuko ditut, mitologia klasikoak Erdi Aroan zehar izan zuen nondik norakoaren azterketa bat egiteko helburuarekin. Honetarako testu astrologikoez eta testu deskriptiboez baliatuko naiz. Ustez, Erdi Aroan forma klasikoak galdu omen ziren. Teoria honi kontrajarriz, mitologiaren mantentzeaz ez ezik, honek izan zuen bilakaera aztertuko dut, Europako eta Europaz kanpoko adibideak aztertuz. Bepizkundeak jasotako ikono klasikoen jakituria ez baitzen zuzenean Aro Klasikotik etorri bere osotasunean, Erdi Aroko jakituriatik ere bereganatu zituzten.

Ezinbestekoak izan dira lan hau egiteko Panofsky eta Saxl-en *Mitología clásica en el arte medieval* liburua, non mitologia klasikoaren mantentzearen inguruko hainbat teoria interesgarri aurkitu nituen. Panofsky-ren *Renacimiento y renacimientos en el arte occidental* liburua ere oso erabilgarria izan da, Erdi Aroko forma klasikoen mantentzean sakontzen baitu. Beste autore esanguratsu bat Seznec izan da, *Los dioses de la antigüedad en la Edad Media y el Renacimiento* liburuan Antzinaroak Erdi Aroan izandako jarraikortasunaz mintzatzen da eta. Azken teorilari aipagarriena Moráis Morán izan da, bere *Roma en el Románico. Transformaciones del legado antiguo en el arte medieval. La escultura hispana: Jaca, Compostela y León (1075-1150)* liburuan egiten duen ikonografia klasikoaren garapena guztiz baliagarria izan delako.

Lanaren hasieran, sarrera bezala, mitologia klasikoaren mantentzeaz hitz egingo dut. Arte Paleokristauak izandako garrantzia azpimarratu eta gerora izandako beste berpizkunde batzuk aipatuko ditut, batez ere Karolingiarra eta XII. mendeko protoberpizkundera. Ondoren, mitologia klasikoaren errepresentazioan murgilduko naiz bi motatako errepresentazio bideak bereiziz: testu astrologiko/astronomikoen bidez eginiko eredu klasikoen kopiak eta testu deskriptiboen (entziklopedia, mitografia...) bidez eginiko irudi klasikoen berregiteak.

Testu astrologikoetan konstelazioen irudikapenen bidez aztertuko dut nola Karolingiarrek estetika klasikoa mantendu zuten bitartean, Arabiarrek zehaztasun zientifikoa eman ziotela eskuizkribu klasikoko irudiei; Berpizkundean bi bide hauek batu zirelarik. Planeten irudikapenaren bidez, ekialdeko tipoek jasandako eraldaketa prozesua aztertuko dut, mendebaldeko etikara aldatu baitziren.

Testu deskriptiboen alorrean, entziklopediak, komentarioak eta mitografiak aztertuko ditut. Lehengo bietan, testuaren irakurketan izandako gaizki-ulertuek emandako irudi mota berriak eta irudi klasikoa oinarri ez izanda egindako ikonografiaren asmakuntzak aztertuko ditut. Mitografien arloan, hauek izandako garrantzia azpimarratuko dut, Berpizkunderako bidea irekiko baitute.

## 2. MITOLOGIA KLASIKOAREN MANTENTZEA ERDI AROAN

Erdi Aroan eginiko Antzinate Klasikoko mitologiaren errepresentazioak aztertzeko, forma klasikoen iraupena aztertzea ezinbestekoa da. XVI. mendetik aurrera, Vasari-ren eskutik, Erdi Aroak nolabaiteko haustura suposatu zuelakoaren ustea hedatu zen, garai honetan forma klasikoen desagerpena pairatu zelarik. Gerora, Berpizkundean, berreskuratu omen ziren forma klasiko hauek. Beraz, Erdi Aroarekiko ikuspuntu negatiboa izan zen nagusi mende luzeetan, XIX. mendean, Erromantizismoaren eskutik, Erdi Aroarekiko miresmena berpiztu zen arte. Erromantikoek Erdi Aroan aurkitu baitzuten beraien nazionalismoaren sorburua. Bestetik, XX. mendean eztabaida asko izan ziren Antzinaro eta Erdi Aroaren arteko hausturaren inguruan.

Jose Alberto Moráis Morán Erdi Aroko forma klasikoen mantentzearen inguruko eztabaidaz mintzatzen da, hainbat teoriariren hitzak bereak eginez:

*“En el año 1987 Peter Burke publicaba un pequeño ensayo titulado El renacimiento. En esta obra, breve en cuanto a su extensión pero contundente en sus afirmaciones, el autor escribía:*

*<< (...) casi todas las características que se atribuyen al Renacimiento pueden encontrarse también en la Edad Media, época con la que se suele contraponer. Y sucede que esta simple oposición binaria entre la Edad Media y el Renacimiento, tan útil a efectos explicativos, es en muchos casos errónea. >>*

*Como suele ocurrir en estos casos, la distancia histórica y el discurrir del tiempo nos ofrecen la ventaja suficiente de poder analizar una idea tan contundente como esta, que el propio Burke defendía dentro del apartado de las conclusiones de su ensayo. Sin embargo, convencido de cuál sería el desenlace de su obra, escribía al comenzar:*

*<< (...) existen razones para afirmar que los llamados “Hombres del Renacimiento” eran en realidad bastante*

*medievales (...). Los medievalistas han reunido datos suficientes para afirmar que el Renacimiento no fue un acontecimiento singular. Existieron varios “renacimientos” en la Edad Media, especialmente en el siglo XII y en la época de Carlomagno. >>*

*Mediante estas palabras Burke demostraba, desde el punto de vista historiográfico, dos aspectos fundamentales. En primer lugar, el cierto rechazo y su correspondiente crítica, al sistema ideológico definido por el suizo Jacob Burckhardt y su apoteósica y trascendente obra La cultura del Renacimiento en Italia.*

*En dicho ensayo, el citado investigador defendía que el renacimiento fue el gran acontecimiento cultural, artístico, económico y sociológico desde la caída del Imperio Romano y la disipación de los siglos de la Antigüedad. El fenómeno renacentista concebido según este planteamiento es un movimiento único, irrepetible y tan solo vinculado en su momento inicial al ámbito italiano de finales del siglo XV y principios del XVI.”<sup>1</sup>*

Hala ere, Burkek baino lehenago Panofskyk 1960. urtean *Renacimiento y renacimientos en el arte occidental* liburua argitaratu zuen. Bertan Panofskyk gezurtatu egiten du Antzinaroa eta Erdi Aroa guztiz banatuak eta distantziatuak zeudenaren teoria (mugimendu estanko eta erlazio gabekoak zirenen teoria baztertzuz). Historia megaperiodo-tan banatzearekin apurtu nahi zuen, megaperiodo hauek historia konexio gabeko momentu historiko handiez betetzen zuten eta. Bere ustetan, guztiz artifizialak dira periodo artistikoen arteko mugak. Beraz, Erdi Aroak ez du haustura historiko-artistikoa suposatzen Antzinaroarekiko eta Berpizkundera lotua baitago milaka hariren bitartez.<sup>2</sup>

Antzinaro berantiar edo Erdi Aroko hastapenetan ez ziren forma klasikoak bat-batean suspertu, forma hauek mantendu egin ziren eta gerora biziraun zuten tokian tokiko aldaketak

---

<sup>1</sup> MORÁIS MORÁN, J.A.: *Roma en el Románico. Transformaciones del legado antiguo en el arte medieval. La escultura hispana: Jaca, Compostela y León (1075-1150)*. Extremadura, Universidad de Extremadura, 2013. 42-43.or.

<sup>2</sup> PANOFSKY, E.: *Renacimiento y renacimientos en el arte occidental*. Madrid, Alianza Editorial, 1960. 32.or

pairatuz.<sup>3</sup> Forma klasikoen bizirautearen lekuko ditugu Arte Paleokristaua eta geroko Erdi Aroan izandako “berpizkundeak”. Aipatzekoa da Arte Paleokristauak paper oso garrantzitsua jokatu zuela, batez ere, mitologia klasikoaren mantentzean.

Lehen arte kristauaren arrastoak Kristo ondorengo 200. urtean topa daitezke, katakonbetan. Erabilitako forma eta lengoaiak antzinako berantiarretik bereganatu bazituzten ere, ez zituzten tendentzia paganoak jarraitu; artistek garaikideak ziren eskemak jarraitu zituzten soilik. III. mende erditik aurrera, produkzio ikonografikoak aberasten zihoazen heinean, sinbolismoa alde batera utzi eta Bibliako pasarteak irudikatzen hasi zirenean, errekurtso klasikoen erabilera areagotu zen.<sup>4</sup>

Ezin dugu ahaztu lehen arte kristaua Erromatar Inperioan hasi zela. Erljio paganoan irudien erabilera oso hedatua zegoen eta lehen kristauak paganoak ziren irudiak guztiz barneratuak eta ikasiak zituzten. Ez da arraroa, gai sinboliko eta ordo comendationis animae-ez aparte, gai paganoen kristauteratzea ematea. Gizarte paganoan ohikoak ziren irudi figuratiboak eredutzat hartu eta esanahia aldatu zieten. Hau guztia, naturaltasun osoz eginiko prozesu bat izan zen.

Izaera sakroa galdu zuten irudikapenak onartu ziren; Zerua eta Lurra, Erreka-jainkoak, Planeta-jainkoak eta konstelazioen irudikapenak, adibidez. Bazeuden beste irudi pagano batzuk kristautasunak bereganatu eta moldatu zituenak: Nike, aingerua; Hermes kriofoa, Kristo artzain ona; edo Orfeo Kristo bezala. Gai kristauak badira ere, ikonografia klasikotik eratorritako irudiak erabili zituzten.<sup>5</sup>

Beraz, arte paleokristauak bere oinarrizko irudiak antzinako klasikoko modeloetatik hartu zituen, Kristoren irudia heroi eta jainko paganoekin konparatuz; adibidez Herkules Hidraren kontra borrokan irudikatzean, Herkulesek Kristo irudikatuko luke eta Hidrak gaizkia; Herkulesek Hidra garaitu zuen bezala garaitzen du Kristok gaizkia (1. irudia). Beste adibide bat, Kristo moskoforoa litzateke, greziar munduan eskaintzailearen irudia zena artzain onaren

---

<sup>3</sup> Ibid., 43.or.

<sup>4</sup> STRANO, S.: “En torno a las catacumbas cristianas de Roma: historia y aspectos iconográficos de sus pinturas”, *Boletín de Arte*, 26-27. zbk., 2005-2006, 17-35 orr.

<sup>5</sup> ELVIRA BARBA, M.A.: *Arte y Mito. Manual de iconografía clásica*. Madrid, Sílex, 2013. 29-30.or.



irudian bilakatu zuten (2. Irudia). Orfeoren irudia ere kristautu zuten, Orfeok bere musikarekin basapiztiak mantsotu eta erakartzen dituen bezala, Kristok ere bere musikarekin kristauak erakarri eta paganoak / barbaroak mantsotzen ditu (3. Irudia).<sup>6</sup>



1. Irudia. Via Latina katakonbako Herkulesen irudikapena Hidraren kontra borrokan



2. Irudia. San Calixto Katakombako Krioforoaren irudikapena



3. Irudia. San Marcelino eta San Pedro Katakombako Orfeoren irudikapena.

---

<sup>6</sup> PANOFSKY, E. eta SAXL, F.: *Mitología clásica en el arte medieval*. Madrid, Sans Soleil, 2016. 15.or.

Aipagarriak dira ere hurrengo mendeetan izandako bestelako “berpizkondeak”. Hauek ere, lehen aipatu bezala, tradizio klasikoaren nolabaiteko mantentzean lagundu baitzuten. Adibidez, V-IX. mendeetan Bizantzion helenismo garaiko greziar artea berreskuratzeko nahia egon zen. Europa mendebaldean aipa daitekeen lehen berpizkondea V. mende erditik aurrera gertatu zen, *Berpizkunde Sixtiniarra* deritzona. Sixto III Aita Santuak antzinate loriatsu baten oroimena berrezarri nahi zuen bere herritarrengan, batez ere arkitekturaren esparruan islatu zena.<sup>7</sup>

Erdi Aroko berpizkondeetan garrantzitsuenetakoa Renovatio Karolingiarra izan zen. Estructura sozio-politikoak berregituratzeko premia, iragan Erromatarrena jo zuten. Administrazioan, hizkuntzan, liturgian eta artean aldaketak emanez. Espoliazioak ere izan ziren, antzinako arkitektura miretsi ez ezik, balore sinboliko eta intelektualak zituzten piezak berrerabiltzen baitzituzten.<sup>8</sup>

Pinturan, eskulturan eta urregintzan prototipo erromatar eta paleokristauek jo zuten, ez zuten antzinako paganoa eta kristaua bereizten. Pertsonaia mitologikoak, planetak eta konstelazio klasikoak Renovatioko aspekturik garrantzitsuenetarikoak izan ziren. VIII. mendean elementu klasiko horiek galduak uste ziren eta Karolingiarrek berreskuratu zituzten hauen ikonografiak. Liburu klasikoen kopia sistematikoak egin zituzten, miniatuagileen lana izan zelarik irudien kopietan estetika klasikoaren mantentzearen bermea.<sup>9</sup>

Azkenik, XII. mendeko protoberpizkondea aipatu behar da; Frantzia, Espainia eta Italia eman zen, gotikoa bere heldutasun unera heldu zen momentuan. Monasterioak jada ez ziren kulturaren produkzioaren zentro, pixkanaka eskola erregional sekularizatuek hartu baitzuten eginkizun hori. Erromanikoan jada hasi zen nolabaiteko “klasikotze” prozesu bat, erdi puntuko arkuen eta kanoi gangen erabileran eta sarkofago erromatarretako erliebeek eskulturan izandako eraginean islatzen dena. Baina gotiko betean eman zen Antzinate klasikoko arrastoekiko miarrena sakonagoa izan zen, kamafeo eta txanponen aurkikuntza

---

<sup>7</sup> MORÁIS MORÁN, J.A.: op. cit., 89-93.or.

<sup>8</sup> Ibid., 93-95.or.

<sup>9</sup> PANOFKY, E.: op. cit., 64-67.or.

eta bildumen bitartez, adibidez. Gainera, bizantziar miniaturek influentzia handia izan zuten garai honetan.<sup>10</sup>

Gotiko goiztiarrean (XII. mendean) azaleko klasizismoa agertzen zaigu. Baina denboraren poderioz, azalekoa zen klasizismo honek bilakaera handia pairatu zuen klasizismo bete batera iritsi arte, XIII. mendean. Klasikotasunerako bilakaera honen gailurra Reims-eko eskolan gertatu zen, bertan modelo klasikoak imitatzen zituzten, errausketa bezalako erritu grekoerromatarrak suspertu zituzten eta Berpizkundeko figurekin konparagarriak diren errepresentazioak egin zituzten.<sup>11</sup>

Azken bi berpizkunde hauek Erdi Aroko garrantzitsuenak badira ere, ez ziren gai izan antzinaroa distantzia finko batez begiratzeko, eta ezinezkoa egin zuten ikuspegi orokor eta arrazional bat. XVI. mendeko Berpizkundera agertuko da antzinaroa bere osotasunean, orainalditik banatua. Erdi Aroko jendeak ez baitzuen inolako hausturatik ikusten Antzinaroa eta beraien garaiaren artean, Antzinaroren jarraikortasun bat zen Erdi Aroa beraiantzat. Berpizkundera, jada, ideal batean bilakatu zen Antzinaroa, guztiz galdua eta nostalgiaz beteriko garai bat bezala; ez da, Erdi Aroan bezala, errealitate bat izango.<sup>12</sup>

Beraz, interesgarriak dira bai Arte Paleokristauk, Karolingiar Renovatioak eta XII. mendeko protoberpizkundeak eginiko ekarpenak forma klasikoen mantentzeari dagokionez. Lan honetan Arte Paleokristaua ez da aztertuko, IX. mendeko arte karolingiarra eta XII. mendeko ilustrazioetan zentratuko naiz. Karolingiarren bitartez, testu astronomiko-astrologikoen bidez eginiko ikono klasikoen kopiak aztertuko ditugu, baita islamiar kulturak eginiko ikono hauen bereganatze eta eraldatzea; gerora Europa mendebaldeko kulturak bereak egin eta berriro antzaldatu zituenak. Bestalde, XII. mendetik aurrerako eskuizkribu mitografiko eta entziklopedikoen bitartez, deskribapenetan oinarritutako antzinaroko mitologia klasikoko ikonografiaren berreraikitzeak aztertuko ditut.

---

<sup>10</sup> Ibid., 69-73.or.

<sup>11</sup> Ibid., 75-77.or.

<sup>12</sup> Ibid., 114-119.or.

### 3. TESTU ASTROLOGIKO/ASTRONOMIKOEN BITARTEZ EGINDAKO EREDU PLASTIKOEN KOPIAK

#### 3.1. TESTU ASTROLOGIKO/ASTRONOMIKO KLASIKOEN GARAPENA

Idatzi astronomiko/astrologikotzat jo ditzakegun lehen testuak Greziako Aro Arkaikoan aurkitzen badira ere, interesgarria da ikustea mitologia klasikoaren hastapenak Greziako Aro Ilunean aurkitzen ditugula. Kristo aurreko bigarren milurtekoan izaera neolitikoko ama lurraren gurtzak iparretik zetozen jainkoekin nahasketa jasan zuen. Jainkosa neolitiko eta jainko indoeupearren arteko batura suertatu zen, hauen arteko ezkontza bitartez.<sup>13</sup>

Aro Arkaikoan, Homero-renak ditugu lehen idatziak non konstelazioak azaltzen diren; mitologiarekiko erreferentziak baditugu bertan, Orion konstelazioaz hitz egiten da eta beste konstelazioei animalia izenak ematen zaizkie.<sup>14</sup> Hasiara batean sinbolo hutsak izan ziren jainkoak, naturako aldaketa-prozesuei erantzuna eman nahian sortuak. Baina K.a. VII. mendean ikonografikoki jauzi handia eman zen: lehen gurtzarako irudiak egiten hasi ziren. Ez zuten interes handia izan jainko hauek karakterizatzeko, santutegi baten kokatzea erreferente nahikoa zen eta. Baina eragin orientalizanteagatik atributuen sorrera eman zen eta figura batzuen errepresentazioa gero eta finkoago egitearen nahia agertu zen.<sup>15</sup>

Aro klasikoa (K.a. V. mendetik K.a. III. mendera) ikonografia klasikoaren urrezko aroa izan zen. Jainkoen errepresentazioarekiko miresmena sortu zen eta jainkoen atributuak geroz eta finkatuagoak zeuden. Egunerokotasuna jorratzen zituzten irudiak gero eta gutxiago ziren, hauek, gai mitologiko eta heroikoengatik ordezkatuak izan baitziren.<sup>16</sup>

Garai honetan, Eudoxo-k (K.a. V. mendean) konstelazioen inguruko lehen liburua idatzi zuen, *Phaenomena* izenekoa. Antzinaroan galdutzat eman zen liburu honek konstelazioak mitoekin lotzen zituen. Idazki honek Soli-ko Arateo-rengan influentzia izan zuen, zeinak izen

---

<sup>13</sup> ELVIRA BARBA, M.A.: op. cit., 19.or.

<sup>14</sup> SEZNEC, J.: *Los dioses de la antigüedad en la Edad Media y el Renacimiento*. Madrid, Taurus, 1983. 41.or.

<sup>15</sup> ELVIRA BARBA, M.A.: op. cit., 20.or.

<sup>16</sup> Ibid., 21.or.

berbereko liburua argitaratu zuen K.a. III. mendean. Bertan, idazkera poetiko baten bidez mintzatzen da konstelazioen inguruan. Arateoren liburuak influentzia handia izan zuen ikonografia kosmologikoan eta baliagarria izan zen garai erromatar eta karolingiarrean zeruko astroak definitzeko.<sup>17</sup>

Aro Helenistikoan, Alejandro-ren heriotzatik (K.a. 323) Augusto-k Egipto hartu zuen arte (K.a. 30), aldaketa handiak eman ziren. Greziak jada ez zuen hiriburu bakarra izango, lau izan ziren hiriburu kultural, politiko eta ekonomikoak: Atenas, Rodas, Pergamo eta Alexandria. Hiriburu hauetako mitologiak, ikonografiak eta arteak bide ezberdinak eta kontrajarriak jarraitu zituzten. Hiri bakoitzak eragin ezberdineko beste herrialde batzuekin izan baitzuen harreman kultural eta artistikoa.<sup>18</sup>

Eratostenes-ek idatzitako *Catasterismi* liburua dugu garai honetatik aipagarriena. Hau Alexandriako liburutegian idatzi omen zuen. Bertan konstelazioak guztiz definituak erakusten zituen eta jainko/heroï grekoerromatarrek jasandako konstelazio transformazio prozesua azaltzen zuen. Gainera konstelazio grekoak beste exotiko batzuekin nahastu zituen, Egipto eta Anatoliako jainkoekin.<sup>19</sup>

Erromatar inperioari dagokionez, kultura greziarraren asimilazio eta moldaketa bat izan zen. Inperioaren bi alderdi bereizi behar dira: alde batetik, bere batasuna, gobernu zentral indartsu batean eta erlijio ofizial oso erritualizatu batean oinarritua; bestalde, bere muturreko barne aniztasuna, pentsamoldeetan eta erlijioan manifestatzen zirenak: latindar kulturaren parean, edo honekin nahastuz, bizirauten zuen kultura greziarrak. Gainera mota guztietako gurtzak hedatu ziren inperioan, sinkretismo erlijiosoa garatuz.<sup>20</sup>

---

<sup>17</sup> FERNÁNDEZ FERNÁNDEZ, L.: “La octava esfera o la esfera de las estrellas fijas”, *Revista Digital de Iconografía Medieval*, 2 zbk., 2010, 41-42 orr. <https://www.ucm.es/bdiconografiamedieval/numero-3> (2020.01.05 kontsultatua).

<sup>18</sup> ELVIRA BARBA, M.A., op. cit., 23.or.

<sup>19</sup> FERNÁNDEZ FERNÁNDEZ, L., op. cit., 42.or.

<sup>20</sup> ELVIRA BARBA, M.A., op. cit., 25.or.

Inperio garaian, Claudio Ptolomeo-k, II-III. mendeetan, *Mathematike suntaxis* liburua plazaratu zuen, izarren lehen katalogoa izan zena. Erromatar garaian liburu hau ahanzturan geratu zen, alde batera utzi zelarik mundu islamiarrak berriro aurkitu zuen arte. IX. mendean Isaac Ibn Hunayn zientzialariak itzuli zuen liburua *Almagesto* izenburarekin. Bestalde, Aratoren liburua izan zen influentzia eta zabalkunde handiena izan zuena. Bertsio asko izan zituen bai antzinako berantiarrean baita Erdi Aroko hastapenetan, eta Aratea izena hartu zuen modu generikoan.<sup>21</sup>

Ptolomeoren testua Mendebaldeko kulturari bi aldiz izan zen itzulia XII. mendean. Lehenengo itzulpenak ez zuen zabalkunde handirik izan, 1160an egin zuen Hermann Carinthia-koak Sizilian, grekeratik latinera itzuli zuen honek. Bigarren itzulpenak eraman zuen definitiboki ezagutaraztera *Almagesto* liburua Mendebaldean, 1175. urtean Gerarde Cremona-koak arabiarretik itzuli zuen latinera Toledon.<sup>22</sup>

Bere garaian Ptolomeoren liburuaren garrantzia handia izan ez bazen ere, baditugu irudiak non *Almagesto* liburuan azaltzen diren pertsonaia mitologikoen irudikapenak ditugun. Adibidez, *Farnesoko globoa* egiterakoan, Ptolomeo-k identifikatutako konstelazioak erabili ziren (4. Irudia). Bertan interes handia sortzen du Herkulesen irudikapenak (5. Irudia). Panofsky eta Saxl-en arabera:

*“En el Globo de Farnesio Hércules no toma forma de semi dios, todavía se le representa como el hombre arrodillado (Engonasin), sin ningún atributo mitológico.”*<sup>23</sup>


Oraindik, heroi honen ikonografia guztiz osatua ez dagoela ikus daiteke, gerora bere atributuak diren lehoi narrua eta garrotea falta baitzaizkio.

---

<sup>21</sup> FERNÁNDEZ FERNÁNDEZ, L.: op.cit., 42.or.

<sup>22</sup> Ibid., 42.or.

<sup>23</sup> PANOFSKY, E. eta SAXL, F.: op. cit., 40.or.



4. Irudia. Franesoko Globo. K.o. II.urtea.



5. Irudia. Farnesoko Globoko Herkules. K. o. II. mendea.

Kristo ondorengo lehen hiru mendeetako panorama intelektualean, Higinioaren *Fabulak* liburua aipagarria da mitografia arloan, non greziar iturriko mitoak batu zituen latineraz. Astronomia arloan, idazle beraren *Astronomia* liburua da aipagarria, non Arato eta Eratostenesek inauguratutako tradizioa jarraitu zuen.<sup>24</sup>

IV-VII. mende bitartean, astrologiaren esparruan, ez dago aipagarria den gertakizun edo idatzirik. Orokorrean, astrologia popularra erabili zen paganoen sinesmenak kristautasunera hurbiltzeko eta honela paganoak kristautasunera gerturatzeko. Guztiz deskriptiboak ziren testu hauek, beraz, aurrerago aztertuko dira. IX. mendera arte itxaron beharko da berriro ere irudiak dituzten testu astronomikoak aurkitzeko.<sup>25</sup>

<sup>24</sup> ELVIRA BARBA, M.A., op. cit., 26.or.

<sup>25</sup> GARCÍA AVILÉS, A.: *El tiempo y los astros: arte, ciencia y religión en la Alta Edad Media*. Murcia, Universidad de Murcia, 2001. 147. or.

## 3.2. KONSTELAZIOEN IRUDIKAPENAREN BIDE EZBERDINAK

### 3.2.1. KAROLINGIARREN ESTETIKAREN MANTENTZEA

VII-XII mende bitartean ikonografia klasikoa galdutzat eman zen, edo ez daude erreferentzia nahikorik historia edo mitologia klasikoa identifikatzeko. Ikonografia mitologiko eskaseko garai honetan, foku bat zegoen non ez zen hausturarik eman: irudi astraletan, planeta eta konstelazioen irudikapenetan. IX. mendean, bi berpizkunde handi egon ziren: Karolingiarra eta Otondarra, zeintzuk ikonografikoki eta estilistikoki aztertuz, forma klasiko batzuk berreskuratu zituzten. 354. urteko *kronografoa* kopiatzean antzinateko irudien memoria berreskuratu zuten, baita Aratoren liburuaren kopiekin eta Rabano Mauro-ren *De originibus rerum* liburuaren kopiekin ere.<sup>26</sup>

354. urteko *Kronografoa* lehen egutegi kristaua izan zen. Erromatar kristau batek enkargatua izan zen, Valentino izenekoa. Gaur egun ez da IV. mendeko kronografo originala mantentzen. Egun daukagun kopia zaharrena XVII. mendekoa da, era berean IX. mendeko kopia Karolingiar baten kopia dena.<sup>27</sup> Beraz, Karolingiar garaiko 354. urteko *kronografo*-aren irudiak aztertzea ezinezkoa zaigu. Baina badakigu irudi hauek influentzia handia izan zutela. Alabaina, badaude eskuizkribu Karolingiarrak gaur egunera arte iritsi direnak.

Aratearen kopien artean esanguratsuena Leyden-ekoa dugu. 825. urtean eginiko Aratoren *Phaenomena* liburuaren kopia bat da.<sup>28</sup> Gorteko pertsona batentzat egina egongo zen, gortean ematen baitziren antzinaroko testuen kopien eskaerak. Segurunik Ludoviko Pio-ren bigarren emaztearentzako, Judith-entzako.<sup>29</sup> Hemen, Perseo eta Herkulesen errepresentazioak dira interesgarriak (6-7. Irudiak). Leyden-eko eskuizkribuan forma klasikoak mantendu ziren 354. urteko *kronografo*-ko irudiak kopiatu ziren eta.<sup>30</sup>

---

<sup>26</sup> ELVIRA BARBA, M.A., op. cit., 31.or.

<sup>27</sup> BURGESS, R. W.: "The Chronograph of 354: Its Manuscripts, Contents, and History", *Journal of Late Antiquity*, 5. zbk., 2013, 345-396. or.

<sup>28</sup> KATZENSTEIN, R. eta SAVAGE-SMITH, E.: *The Leiden Aratea. Ancient Constellations in a Medieval Manuscript*. Malibu, The J. Paul Getty Museum, 1988. 5.or

<sup>29</sup> Ibid., 9.or.

<sup>30</sup> PANOFSKY, E. eta SAXL, F., op. cit., 48-50. or.



Herkulesen irudikapenari dagokionez, garroteaz eta lehoi narruarekin irudikatua dago. Hortaz, bilakaera bat ikusten dugu antzinaroko gizon makurtuaren errepresentaziotik. Gizon makurtuaren eta Herkulesen arteko erlazioa egin omen zen Helenismo garaia eta Karolingiar Renovatioaren artean, ez dago argi zein momentutan.<sup>31</sup> Baina baliagarria zaigu ikusteko atributu klasikoak Karolingiarren garaian guztiz definituak bazeudela ikusteko, gerora mantendu zirenak.

Perseoren irudikapenean, estetika klasikoaren barneraketa oso ona egin zutela nabari daiteke. Panofskyk esaten duen bezala, Perseoren irudia Ponpeiako freskoekin guztiz konparagarria da.<sup>32</sup> Korrika ageri da, mitoaren arabera, Andromedari laguntza eskaintzera zihoan eta. Bere lau atributuetatik hiru daramatza: txapel frigioa, Hermesek emandako hegodun oinetakoak edo *Talaria*-k, eta Medusaren burua ezker eskuan (sugez eginiko ilearekin eta eztarritik odola botatzen). Kasu honetan, igitaia beharrean mokodun makila bat du (7. Irudia).<sup>33</sup>



6. Irudia. Leydeneko Aratearen kopia  
Karolingiarreko Herkulesen irudikapena.  
IX. mendea



7. Irudia. Leydeneko Aratearen kopia  
Karolingiarreko Perseoren irudikapena.  
IX. mendea.

<sup>31</sup> Ibid., 21.or.

<sup>32</sup> PANOFSKY, E. eta SAXL, F., op. cit., 45.or.

<sup>33</sup> SAYÁNS GÓMEZ F.: "El ciclo de Casiopea en los manuscritos latinos medievales", *Revista Digital de Iconografía Medieval*, 18 zbk., 2018, 99-128 orr. <https://www.ucm.es/bdiconografiamedieval/numero-19> (2020.02.11 kontsultatua).

### 3.2.2. ISLAMIARREN IKUSPUNTU ZIENTIFIKOA

Karolingiar mundua alde batera utzita, Erdi Aroko panorama kulturala islamiar munduarekin osatzen da. Bi korrante literarioren bidez mantendu zuten ikonografia klasikoa: gai historikoetan, batez ere Karlo Magnoren historia; eta irudikapen astrologiko-astronomikoetan. Orokorrean, Arabiarrek, jakituria grekoerromatarraren zaindari eta zabaltzaile bezala garrantzi handia izan zutela esan daiteke.<sup>34</sup>

IX. mendetik aurrera garapen zientifiko handia ezagutu zuen islamiar kulturak. Greziar kultura eta kultura hinduaren tradizioak bateratu zituzten eta bi hauen bateraketaren ondorioa zen jakituriak elikatu zen Erdi Aroko astrologia. Bagdad, islamiar inperioaren hiriburu politiko zena, jakituria grekoaren berreskuraketa eta ikasketa zentroz josia zegoen. Obra klasiko asko itzuli zituzten eta Ptolomeoren *Mathematike syntaxis* testua, adibidez, *Almagesto* izenburupean itzulia izan zen. Toledok eta Siziliak ere, XII. mendean, garrantzi handia izan zuten testu arabiarrengandik jasotako jakituria greziarra hedatzen.<sup>35</sup>

Abd al-Rahma Al-Sufi, X. mendeko teoriko arabiarrek, *Izar finkoen tratatua* argitaratu zuen. Bertan izar klasikoen taldea eguneratu zuen, kultura aurre-islamiarreko izar taldeak gaineratuz. Hain zuzen ere, konstelazio bakoitzaren ikonografia zehaztu zuen.<sup>36</sup> Liburu hau gaur egun Arsenal-go liburutegiko artxiboan dago eskuragarri, eta bertan Herkulesen eta Perseoren irudikapenek jasotako orientalizazio prozesua ikus daiteke (8-9. irudiak).

Herkulesek kaskete bat darama eta jantzia islamiar estilotik kopiatua du. Ez darama lehoi narrurik eta garrotea zimitarra batengatik aldatu da. Bestalde, Herkulesen posea askoz ere fidelagoa da karolingiar kopia onenetan baino. Ikonografikoki egokia ez bada ere, zientifikoki izarren kokapena zehatza da; Herkulesen postura aldatu baitzen konstelazioaren benetako formara egokitzeko.<sup>37</sup>

---

<sup>34</sup> ELVIRA BARBA, M.A., op. cit., 32.or.

<sup>35</sup> FERNÁNDEZ FERNÁNDEZ, L: op. cit.,43.or.

<sup>36</sup> Ibid., 43.or.

<sup>37</sup> DOMÍNGUEZ RODRÍGUEZ, A.: “Astrología y mitología en los manuscritos ilustrados de Alfonso X El Sabio”, *En la España medieval*, 30. zbk., 2007, 47. or.  
<https://revistas.ucm.es/index.php/ELEM/issue/view/ELEM070711> (2020.02.24 kontsultatua)

Perseoren kasuan ere posea aldatu zitzaion izarren posizioarekin bat etortzeko. Aldaketa ikusgarriena eskuan daraman buruan ematen da. Medusaren burua izan beharrean, gizonezko buru bat dauka. Gizonezko deabru baten burua da, ilustratzaile arabiarrek (ez zutenak asmatu norena zen eskuetan zeraman burua) eztarriko odola bizar bezala interpretatu baitzuten.<sup>38</sup> Beraz, antzinate klasikoko zenbait elementuren ezagutzan hutsunea ikus daiteke. Gizonezko buru bat izan behar zela ulertuta, beraien tradizio mitologikotik eratorritako deabru burua ezarri zitzaion.



8. Irudia. Al-Sufi-ren *Izar finkoen tratatu*-ko Herkulesen irudikapena. X. mendea



9. Irudia. Al-Sufi-ren *Izar finkoen tratatu*-ko Perseoren irudikapena. X. mendea.

<sup>38</sup> Ibid., 49.or

### 3.2.3. BERPIZKUNDERAKO BIDEAN

Orokortuz, Europa mendebaldeko Erdi Aroko kulturak bi errepresentazio lerro izango ditu konstelazioen irudikapenari dagokionez: Irudi grekoerromatarrak, karolingiarrek egindako Aratearen kopiengandik; eta tradizio islamiarra, batez ere Al-Sufiren testuaren bitartez garatua (kultura islamiarrarekin kontaktua zuten gorteetan presente zegoena).<sup>39</sup>

Aratoren poemaren Goi Erdi Aroko kopiak, eduki ikonografikodun testu astronomiko-astrologikoak zirenez, estetika klasikoa mantentzen zuten. Aratea eskuizkribuen ilustrazioen prototipoak Erromatar Inperioan finkatuak zeuden.<sup>40</sup> Karolingiarrek antzinaroko testuen kopia sistematikoa egin zuten. Miniaturagileak astrologia liburuen irudien kopia ahalik eta zehatzenak egiten saiatu ziren, estilo eta teknika aldetik antzekoak izanez.<sup>41</sup>

Mundu islamiarrak figura astronomiko greziarrak barneratu eta garatu zituen. Modelo greziarren zehaztasun zientifikoa hobetu zuten, baita konstelazioen errepresentazio antropomorfikoak orientalizatu. Jainkoak antzaldatzen zituzten, jantzi eta bitxi orientalekin janzten zituzten eta Beduinoen kulturako trazu bereizgarriak atxikitzen zizkieten.<sup>42</sup>

Karolingiarren irudien asimilazioa estiloaren eta esanahi mitologikoaren aldetik zehatzak izan ziren, baina zehaztasun zientifikotik urruti. Bestalde, Arabiarrek eginiko Antzinaroko irudien asimilazioa metodikoki klasikoa zen, baina figura ez-klasiko batzuen atzean ezkututzen zen. Bi iturri hauen batuketara Berpizkundean eman zen: esanahia eta tipologia bateratuz. Erdi Aro osoan zehar banatuak egon zirenak.<sup>43</sup>

Durero-k, adibidez, bi korronteetatik eratorritako irudien asimilazioaren bidez sortu zuen bere *Mapa Zerutarra* (10. Irudia). Izarren posizio eta figuraren posturari dagokionez, jatorri arabiarrari jarraitzen dio, baina beste guztia klasikotu zuen. Gorputz gihartsua eta bizar

---

<sup>39</sup> FERNÁNDEZ FERNÁNDEZ, L.: op. cit., 46.or.

<sup>40</sup> PANOFISKY, E. eta SAXL, F.: op. cit., 24.or.


<sup>41</sup> Ibid., 30.or.

<sup>42</sup> Ibid., 38.or.

<sup>43</sup> Ibid., 40.or.



handia du Herkulesek, garrotea eta lehoi narrua bueltarazten dizkio. Mitologikoki eta zientifikoki ez ezik, esanahi eta forma klasikoak ere berreskuratzen ditu.<sup>44</sup> Perseo irudikatzerakoan, Durerok, berriro klasikotu zuen irudi hau, orkatilan hegoak jarri zizkion eta medusaren burua berreskuratu zuen (11-12. Irudiak).<sup>45</sup>



10. Irudia. Dureroren Mapa Zerutierra. 1515. urtea



11. Irudia. Dureroren Mapa Zerutiarreko Herkulesen irudikapena. 1515. urtea



12. Irudia. Dureroren Mapa Zerutiarreko Perseoren irudikapena. 1515. urtea

<sup>44</sup> DOMÍNGUEZ RODRÍGUEZ, A.: op. cit., 47.or.

<sup>45</sup> PANOFKY, E. eta SAXL, F.: op. cit., 48. or.

### 3.3. EKIALDEKO PLANETEN IRUDIEN ASIMILAZIOA

Planeten errepresentazioak, konstelazioekin konparatuz, garapen guztiz ezberdina izan zuen. Hauen aurkikuntza eta irudikatze erak ezberdinak izan zirelarik. Planeten ikonografia, batez ere, arabiarrengandik barneratu zen. Arabiarrek beraien estilora moldatu zituzten jainko paganoak eta Europa mendebaldera berriro iritsi zirenean, hauek berriro mendebaldeko estetikara egokitu ziren. Guztiz berriak ziren errepresentazio motak sortuz.

Venus izan zen greziarrek identifikatu eta izendatu zuten lehen planeta. K.a. V. mendean, Babiloniarren eraginez, beste lau planeta identifikatzen ikasi zituzten: Nabu, Marduk, Ninib eta Nergal.<sup>46</sup> Mesopotamiar jakituriaren barneraketa prozesu hau helenismo garaian asko arindu zen, Alejandroren Babiloniaren konkista zela eta. K.a. IV. mendean Knido-ko Eudoxo-k bost planeten izenak helenizatu zituen: Nabu - Hermes (Mercurio), Marduk - Zeus (Jupiter), Ishtar - Afrodita (Venus), Ninib - Ares (Marte), eta Nergal - Crono (Saturno).<sup>47</sup> Beraz, planeten inguruko jakiturgia klasikoa mesopotamiar jakituriarekin osatzen da. Hau garrantzitsua izan zen beranduago egin ziren ilustrazioetan.

XII-XIII. mendeetan jakiturgia arabiarren barneratzea eman zen Europan. Honek astronomian, medikuntzan eta natur zientzietan aurrerakuntzak ekartzeaz aparte, astrologiaren inguruko jakiturgia ere ekarri zuen. Adibidez, izarrek pertsonen patua eta izaera determinatzen zutenaren ustea hedatu zen. Hasiera batean guztiz bateraezina zen ideia hau kristautasunaren ideiekin, baina medikuntzaren arlotik barneratu zenez jakiturgia hau, miresmen handia sortu zuen Europa mendebaldean.<sup>48</sup>

Behe Erdi Aroko testuinguru honetan Aristoteles eta Ptolomeoren testuak berreskuratu ziren batik batik, Aratoren testua alde batera utziz. Konstelazioen irudikapena Arateari oso lotua dagoela ikusi dugu, baina XII. mendeko testuinguruan Aristoteles edo Ptolomeo bezalako idazleen garrantzia izan zen azpimarragarria, bai estetika, filosofia eta natur zientzien arloan. Ahaztu ezina da mendebaldeko Erdi Aroak testu greziar hauek islamiarren eskutik ezagutu

---

<sup>46</sup> SEZNEC, J., op. cit., 41.or.

<sup>47</sup> ELVIRA BARBA, M.A., op. cit., 23.or.

<sup>48</sup> PANOFISKY, E. eta SAXL, F., op. cit., 48-50. or.

zituztela. Ondorioz, Mendebaldean berriro ere jainko paganoen irudiak aldaketak pairatu zituzten, ekialdeko estetika batetik berriro okzidentalizatu ziren, mendebaldeko modaren eta estetikaren baitan irudikatuz, baita atributu berriak jarriz jainkoei.<sup>49</sup>

Idatzi astronomikoetan planeten errepresentazioa busto batzuetara mugatzen zen. Mapa hauetan jainkoek tipologia klasikoa mantentzen zuten eta ez dira oso aipagarriak lan honetarako. Eskuizkribu astrologikoetan, berriz, degenerazio handiak ikusten ditugu. Aldaketak hain dira handiak, guztiz berriak diren irudiak bezala tratatu behar ditugula. Miguel Escoto, Federiko II.enaren gorteko astrologoa zenak, 1243-1250 urte bitartean eginiko tratatu astrologikoko ilustrazioak ditugu adibide egokienak, *Liber introductorius*-ekoak (13. Irudia).<sup>50</sup>

Jupiter mahai baten atzean dagoen epaile bat bezala irudikatu zuen, eskularruak daramatza eta erroilu bat dauka mahaian irekia. Venus, janzkera garaikidea daraman dama gazte liraina da, eskuetan arrosa bat duena. Merkurio zahar eruditu edo apezpiku bat bezala irudikatu zuen, liburuarekin eta bakuloarekin.<sup>51</sup> Irudi hauen jatorria arabiarra da, ilustratzaile arabiarrek atributu eta ezaugarri guztiz ez klasikoak eman baitzizkien eta Europarrek hauek kopiatu zituzten. Testu arabiarren arabera Venus loreak daramatzen dama gaztea da, Jupiter zaldun dotore bat eta Merkuriok liburua daraman sazerdotea.<sup>52</sup>

---

<sup>49</sup> FERNÁNDEZ FERNÁNDEZ, L., op. cit., 46.or.

<sup>50</sup> PANOFISKY, E. eta SAXL, F., op. cit., 48-50. or.

<sup>51</sup> PANOFISKY, E.: *Estudios sobre iconología*. Madrid, Alianza Editorial, 1972. 32-33.or.

<sup>52</sup> PANOFISKY, E. eta SAXL, F., op. cit., 48-50.or.



13. Irudia. Miguel Escotokoaren *Liber Introductorius*-eko planeten errepresentazioa. XIII. mendea

Arabiarrek egindako jainko klasikoaren interpretazio honek Mesopotamiako jainkoetan du jatorria. Jainko grekoerromatarrek Mesopotamiako atributuekin hornitu zituzten eta europarrek mendebaldeko estetikara moldatzeko prozesuan mesopotamiar jainko hauen atributuak mantendu zituzten: Merkurio, adibidez, jakitun bat izango da Nabu jainko mesopotamiarra bezala eta Jupiter monje bezala irudikatuko da Marduken izaera sakratua dela eta.<sup>53</sup> Escoto Espainian eta Sizilian egon zen, eta elaborazio astrologiko arabiarrekin ohitua zegoen, beraz, hauetan oinarritu zen. Baina irudi arabiarrek kopiatu beharrean, irudi europar garaikideak erabili zituen.<sup>54</sup>

Tipologia arabiarrek, beraz, ez zetozen bat tradizio grekoerromatarrekin. Jatorria, lehen aipatu bezala, Babilonian aurkitzen da. Beraz, XIII-XIV mendeetan agertu ziren planeten

<sup>53</sup> ELVIRA BARBA, M.A.: op. cit., 33.or.

<sup>54</sup> PANOFSKY, E. eta SAXL, F.: op. cit., 55-56.or.



irudikapenak (Aratearen kopia karolingiarren irudiak ordezkatu zituztenak) ez dira tradizio klasikoaren deribazioak, ekialdeko kontzepzioen Erdi Aroko berregitea baizik.<sup>55</sup>

Planeta arabiarrek, *Kitāb al-Bulhān*-ean (Mirarien liburua) agertzen den bezala (14. Irudia), ez dute inolako erlazorik figura klasikoekin. Arabiarrak ematen dute eta kasu batzuetan indioak.<sup>56</sup> Eskuizkribu honetan, jainko bakoitza banda horizontaletan kokaturiko beste pertsonaia batzuen presidente bezala agertzen dira. Pertsona hauek “planetan semeak” dira eta planeta bakoitzaren influentzian jaiotako pertsonak izan behar lituzketen ofizioak irudikatzen dituzte. Taula sinoptiko hauek garrantzi handia izango dute ikonografia sekularrean.<sup>57</sup>



14. Irudia. *Kitāb al-Bulhān*-eko planeten semeen irudikapena. XIV. mendea

XV. mendeko arte nordikoek arabiarren heterogeneitasuna estandarizatzeko ahaleginak egin zituzten. Ogibide batzuk kendu zituzten eta gainontzekoak espazio piktoriko bateratu batean kokatu ziren atmosfera atsegin bat sortzeko. Garapen hau Kristina Pizan-ekoaren *Epitre*

<sup>55</sup> Ibid., 55-56.or.

<sup>56</sup> Ibid., 50-55.or.


<sup>57</sup> Ibid., 57.or.

*d'Othea*-n du jatorria. Bere aita fisikoa eta astrologoa zen eta beragandik jaso zituen astronomiako jakituriak.

Bere liburuaren ilustrazioetan Marteren semeak filosofo edo maisu bezala agertzen dira, Marte ortzadar baten gainean eserita dagoelarik (15. Irudia). Eskema konpositibo hau erlijio Kristauko beste errepresentazio batzuetatik barneratua dago, azken judizio edo apokalipsia bezalako pasartearen errepresentazioetatik. Espiritu santuaren eraistearen pasartearen ikonografiarekin antzekotasun handiak aurki ditzakegu (16. Irudia).<sup>58</sup>



15. Irudia. Pizan-go Kristina-ren *Epitre d'Othea* liburuko Marteren semeen errepresentazioa. XIV. mendea



16. Irudia. Toros Roslin-ren *San Sebastianen ebangelio*-ko espiritu santuaren eraistekaren pasartearen errepresentazioa. XIII. mendea

Eskema konpositibo hau barneratua eta onartua izan zen unibertsalki. XV. mende bukaerako konposizioek Pizan-en poemetan zuten jatorria, ilustratzaile italiarrek eskema hau kopiatu eta zabaldu baitzuten. Baina, planeten semeen irudikapenean egunerokotasuneko gaiak hasi ziren irudikatzen, kostumbrismo kutsua emanez gai astrologiko honi. Honela, Jupiterren semeak bizitza popularraren erretratuak izango dira; Saturnorenak, berriz, behartsu, nekazari eta

---

<sup>58</sup> Ibid., 60-61.or.

kriminalena etab. Garaikidea zen egunerokotasun batez bete zen planeten semeen irudikapena, guztiz aldenuz forma klasikoetatik.

Baina aldi berean, Ipar Europan, Miguel Escotoren liburuaren kopietan, forma ez klasikoak alde batera uzten hasi ziren grekoerromatarrek diren formak gogorarazten dituzten ikonografiak erabili ziren. 354. urteko *kronografoa*-ren kopia karolingiarretik imitatu zituzten forma hauek, adibidez Estrasburgon XV. mendean eginiko *Astronomia orokorreko eskuizkribua* (17. Irudia). Bertan Marte bere ezkuarekin agertzen da, proportzioa gotiko berantiarrekoa bada ere, bere postura eta mantuaren trataera guztiz klasikoa den zerbait gogorarazten digu.



17. Irudia. *Astronomia orokorreko eskuizkribua*. XV.mendea.

XV.mendeko mugimendu humanistarekin zenbait artista nordikok ulertu zuten ez zuela zentzurik jainko klasiko bat irudikatzea forma klasikoak erabili gabe. Forma klasikoen erreferenteak, Karolingiar Renovatio-tik hartu zituzten, garaian besterik ez baitzegoen.<sup>59</sup>

<sup>59</sup> Ibid., 61-64.or.

## 4. TESTU DESKRIPTIBOEN BITARTEZ EGINIKO BERRERAIKITZEAK

### 4.1. TESTU DESKRIPTIBOEN GARAPENA

Mitologiaz hitz egiten duten testuekin hasi aurretik, ezinbestekoa da jakitea Greziako Aro Helenistikoan erlijio tradizionalaren kontrako ideiak plazaratzen hasi zirela. Esparru honetan guri gehien interesatzen zaigun pertsona Evemero (K.a. 300) da. Bere ustez jainkoak antzinako erregeak ziren, historiako momenturen batean jainkotuak izan zirenak gizarteari eginiko ekarpen baliagarriak zirela eta.<sup>60</sup> Evemerok plazaratutako ideia honek garrantzi handia izan zuen Erdi Aroan. Gai mitologikoen inguruko idatziek ikuspuntu evemerista izango baitute; jainko paganoak ezereztatzen baitu ikuspuntu honek, eta hau zen bide bakarra jainko pagonen inguran idazteko. Jainko hauek egiazkotzat jotzea heresia izango baitzen.

Inperio Erromatarraren azken mendean, Elizako Aitak jainko paganoak ilusioak edo deabruak zirelakoaren ustea zabaltzen saiatu ziren. Honekin, gizartea asko aldendu zen jainko paganoengandik. Jende hezituak entziklopedien, poeta klasikoen komentarioen, poema edo nobela didaktikoen eta tratatu mitologiko espezifikoen bitartez ikasi behar zuten mitologia.

Antzinaro berantiarreko idazleek pertsonaia mitologikoak era alegoriko edo moralizatzaile batean tratatzen zituzten. Idatzi garrantzitsuenak hurrengoak dira: Marciano Capella-ren *Nuptiae Mercurii el Philologiae*, Fulgencio-ren *Mitologiae*; baina batez ere Servio-ren *Virgilioren komentarioa*.<sup>61</sup> Ovidio ere aipagarria zaigu, *Fasti*, *Heroides* eta *Metamorfosia* bezalako lanengatik. Azken honek Erromatar garaiko artean garrantzirik izan ez zuen arren, Behe Erdi Aroan eta Aro Modernoan mitologiaren inguruko gida erabilienetarikoa izan zen.<sup>62</sup>

Beraz, Inperio garaian mitografo handien garaia izan zen. Jainko eta heroien arloa izan zuten ikerketa eremu bezala. Sinestea beharrezko ez zen elezahar multzo handitzat hartu zuten mitologia, elezahar hauetan sinestea beharrezkoa ez bazen ere, hauek era koherente batean ordenatzea bai zen beharrezkoa.<sup>63</sup>

---

<sup>60</sup> ELVIRA BARBA, M.A.: op. cit., 23.or.

<sup>61</sup> PANOFISKY, E.: *Estudios sobre iconología*. Madrid, Alianza Editorial, 197. 29-30.or.

<sup>62</sup> ELVIRA BARBA, M.A.: op. cit., 24.or.

<sup>63</sup> *Ibid.*, 25.or.

Inperioaz geroztik, IV-VIII. mende bitartean, Konstantino enperadoreak kristautasuna ezarri zuen erlijio ofizial bezala. Erlijio grekoerromatarra jazarria izan zen, paganoen gurtza klandestinitatean eman zelarik. Baina, paganismoaren desagertzea prozesu luzea izan zen, V. mendean oraindik badakigu bazeudela sinesmen paganoak. VI. mendean mitologia klasikoa ikerketa arlo soil baten bilakatu zen, testu klasikoen azterketan oinarritua eta sinesmen erlijiosorik inplikatzeko ez zuena. Horrez gain, jainko asko ezereztatu zituzten, beraien izaera jainkotiarra galduz.<sup>64</sup>

Erdi Aroan zehar testu hauek eta beste antzekoak oso erabiliak izan ziren, garapen handia izan zutelarik. Honela iraun zuen jakituria mitologikoak, eskuragarri izanez poeta eta artistentzat.<sup>65</sup> Liburuetako irudiei dagokienez, testuaren jarraibideak irakurriz egiten zituzten jainko paganoen irudikapena, estilo eta janzkera klasiko gabeko irudikapenak sortuz. Jainko bakoitzaren atributuak irudikatzen bazituzten ere, ez zen nahikoa jainkoen oinarritzko fisionomia ordezkatzeko. Modelo plastikoaren ausentzia zela eta, ez zekiten ondo nola irudikatu behar ziren jainko paganoak. Beraz, mitologia beraien gustuetara egokitzen zituzten, testuaren laguntzarekin egindako jainkoen birmoldaketa saiakerek antzinaroarekin zerikusirik ez duten irudiak sortu zituzten.<sup>66</sup>

Lan honetan hiru motatako testu deskriptiboak aztertuko dira hurrengo hiru ataletan: entziklopediak, komentarioak eta mitografiak. Entziklopedia eta komentarioen bitartez jainkoen errepresentazioen tipologia berrien sorrera aztertuko da. Gai mitologikoak ez ezagutzeak eta eredu plastiko gabe lan egitearen ondorio izan zirenak. Mitografien eskutik, mitologia klasikoko irudien sintetizazioa eman zela erakutsiko da.

---

<sup>64</sup> Ibid., 27-28.or.

<sup>65</sup> PANOFISKY, E.: *Estudios sobre...*, op. cit., 30.or.

<sup>66</sup> SEZNEC, J.:op. cit., 142-143.or.

## 4.2. ENTZIKLOPEDIAK

Entziklopediak garapen goiztiarra izan zuten Beda edo Isidoro Sevillakoa bezalako idazleen eskutik. Isidoro Sevillakoak, VIII. mendean, *Etimologiak* liburua argitaratu zuen, bertan Bibliako pertsonaiak eta pertsonaia mitologikoak marko tenporal berdinean kokatzen ditu, jainko eta munstro klasikoak arrazoiketa alegoriko eta pseudoarrazionalen bidez azalduz. Evemerismoaren ikuspuntutik egindako testuak izango dira, beraz.<sup>67</sup> Tradizio hau Rabano Maurok jarraitu zuen (IX. mendean) eta puntu gorenera iritsi zen Goi Erdi Aroan Beauvais-ko Vicente, Brunetto Latini eta Bartolomeo Anglico bezalako idazleen eskutik.<sup>68</sup>

Entziklopedietan, orokorrean, forma klasikoen galera oso azkar eman zen. Aztertuko dugun irudia Montecasinon 1023an eginiko *De rerum natura*-koa da. Liburu hau Rabano Mauro-k IX. mendean eginiko *De rerum natura* entziklopediaren kopia da, gerora *De universo* deitu zena. Aldi berean, Rabanoren idazkia Isidoro Sevillakoaren *Etimologiak* liburuaren kopia da, gaur egunera ez dena iritsi.<sup>69</sup>

Montecasinoko liburuan XI. mendeko panteoi grekoerromatarra irudikatzen da (18. Irudia). Ezkerreko irudia Vulcano da, hankaoker irudikatzen du eta hauspoa darama eskuan, bere erremintari izaera azpimarratuz.<sup>70</sup> Bere ondoan Pluton dugu, honek daraman ontziaren arrazoa bere latinezko izenetik dator Orcus, *orca*-tik eratorria, urna esan nahi duena. Merkurio da ondorengoa, bere makilarekin suge bat zapaltzen du, hemen testuaren irakurketa okerra ikusten da (Rabanok “*Virga, qua serpentes dividit*” irakurri zuen, hau da, “sugea zatitzen duen makila”, “*Virga, quae serpentes dividit*” beharrean “bi suge banatzen dituen makila”). Bako da azkena, bere kopa ez da testuan aipatzen, gainera mahats hostoz eginiko koroa darama, beraz, suposa dezakegu modelo klasiko batetik atera zuela. Rabanok guztiz berriak ziren irudi hauek sortu zituen, baina irudiak ahanzturan galdu ziren, ez zuten inolako jarraipenik zan.<sup>71</sup>

---

<sup>67</sup> ELVIRA BARBA, M.A.: po. cit., 29.or.

<sup>68</sup> PANOFISKY, E.: *Estudios sobre...*, op. cit., 30.or.

<sup>69</sup> PANOFISKY, E. eta SAXL, F.: op. cit., 71.or.

<sup>70</sup> ELVIRA BARBA, M.A.: op. cit., 212.or.

<sup>71</sup> PANOFISKY, E. eta SAXL, F.: op. cit., 72-73.or.





18. Irudia. *De rerum natura*-ko panteoi grekoerromatarra.  
Vulcano, Pluton, Baco eta Merkurio. XI. mendea.

### 4.3. KOMENTARIOAK

Erdi Aroko mitografoek antzinaro berantiarrean eman zen literatura konglomerazio oso zabal batekin egin zuten topo. Hortaz, antzinaro berantiarreko idazleen hitzak batu zituzten testuen komentarioak eginez, baita jada antzinaroan eginiko komentarioen gaineko komentarioak eginez, literatura erromatar klasikoa ulerterrazago egiteko asmoz.<sup>72</sup>

Autoretza ezezaguneko XII. mendeko Virgilioren Eneidaren komentario batean Laocoontearen irudikapena agertzen da (19. Irudia). Ilustratzaileak ez zuen inolako errepresentaziorik irudi klasikoa nolakoa zen jakiteko, testu deskriptiboa zuen soilik eskura. Beraz, guztiz berrinterpretatzen ditu irudiak eta konposizioa. Laocoonte, zeinak sakrifizioa egiten zuen, monje burusoil bat bezala irudikatzen du; zaharra eta basatia da, zezen baten kontra egiten du aizkora batekin. Semeak, sakontasunik gabe irudikatuak, flotatzen bezala daude irudiaren albo batean. Bitartean, itsas sugeak uretatik ateratzen daude.<sup>73</sup>



19. Irudia. Virgilioren *Eneida*-ren komentarioko Laocoonte eta bere semeak. XII. mendea

Bereziki interesgarriak dira Marciano Capella-ren *Nuptiae* idazkiaren gaineko komentarioak, Juan Escoto Erigena eruditu irlandarrak testu honen inguruko anotazioak egin zituen eta Remigio Auxrrekoak IX. mendean komentatu zituen.<sup>74</sup> 1100 urte inguruko ilustratzaile batek Remigio-ren *Marciano Capella-ren komentarioa* ilustratu zuen (20. Irudia).<sup>75</sup> Bertan jainko asko agertzen dira: Cibeles, Saturno, Jupiter, Apolo, Marte, Merkurio... Inskripziorik gabe

<sup>72</sup> Ibid., 75.or.

<sup>73</sup> Ibid., 76.or.

<sup>74</sup> PANOFSKY, E.: *Estudios sobre...*, op. cit., 30.or.

<sup>75</sup> PANOFSKY, E. eta SAXL, F.: op. cit., 75-79.or.



oso zaila egiten zaigu jainko bakoitza identifikatzea, begirada batez, ez estiloak ezta janzerak ere ez baitute klasikotasuna adierazten, guztiz garaikideak dira.

Baina artistak ez du irudikapen hau fantasiaren eskuetan utzi, kontrara, testuaren deskribapena era zehatz batean jarraitu du. Testuak aipatzen dituen atributu guztiak ematen dizkie jainkoei.<sup>76</sup> Cibeles-i tinpanoak eta bere zuhaitz sakratua, Atis-en pinua, jarri dizkio; bere inguruko pertsonaiak eta bere posea ere testuko deskripzioetatik datoz.<sup>77</sup> Jupiter, berriz, Erdi Aroko errege bat bezala agertzen da eta bere arranoak (edo beleak) ninbo txiki bat darama, San Juan Ebangeliariak edo San Gregorioren usoak bezala; gainera Dodona-ren zurbeltza darama.<sup>78</sup>



20. Irudia. Remigio-ren Marciano Capella-ren komentarioko panteoia. XII. mendea.

<sup>76</sup> SEZNEC, J.: op. cit., 142.or.

<sup>77</sup> TALAVERA ESTESOR F.J.: “Tradición clásica y mitografía: pervivencia del mito de Cibele en algunos textos latinos de la Edad Media del Renacimiento” *Revista de Estudios Latinos (RELat)*, 5 zbk., 2005, 225-244. orr.

<sup>78</sup> PANOFSKY, E.: *Estudios sobre...*, op. cit., 32.or.

Bestalde, Saturno irudikatzerakoan irudi klasikotik asko aldentzen da. Saturnok burua estalia darama, testuak *caput velatum* (“buru estalia”) aipatzen du eta, badaude aro klasikoko efigieak non jainkoak bere togaren fleko bat buru gainean daraman, baina ilustratzaileak belo bat jarri dio dosel batekin.<sup>79</sup> Atxikitzen zaion beste atributu interesgarri bat *uroboros*-a dugu; antzinaroan bere isatsari hozka egiten dion sugea zen, Egiptoko eta Mesopotamiako kulturetan denboraren izaera ziklikoa errepresentatzen zuena. Marcianok, *urobos*-a Saturnori egokitzen dio eta Erdi Aroko miniaturistak, honen deskripzioa irakurria, Erdi Aroko dragoi bat errepresentatu du.<sup>80</sup>

Apoloren irudia oso interesgarria da, gurdi batean doa eta hiru graziak lore sorta bat bezala daramatza, gainera arkua, geziak eta eguzki izpidun koroa ditu. Testuaren arabera Apolok hiru graziak daramatza eskuan; Remigiok Macrobio-ren *Pausanias* liburutik hartu zuen detaile hau: <Apollinis simulacra manu dextera Gratis gestant> (Saturnales, I, 17). Macrobiok hiru graziak deskribatzean, garaiko talde eskultoriko bateri egiten dio erreferetzia, jada kodifikatua zegoen hiru grazien konposaketa bati. Baina Remigioren liburuaren ilustratzaileak, halakorik inoiz ikusi ez zuenak, lore sorta bat bezala irudikatu zituen hiru graziak.<sup>81</sup>

Ikusten dugu nola atributuen erabilera ez dela nahikoa jainkoen izaera klasikoa berrizteko, modelo plastikorik gabe artistek ez baitzekiten nola errepresentatu jainkoak eta saiatu arren, ez ziren gai izan klasikotasuna iradokitzen duten irudiak sortzeko.<sup>82</sup>

---

<sup>79</sup> Ibid., 143.or.

<sup>80</sup> ELVIRA BARBA, M.A.: po. cit., 55.or.

<sup>81</sup> PANOFISKY, E. eta SAXL, F.: op. cit., 75-79.or.

<sup>82</sup> SEZNEC, J.: op. cit., 142.or.



#### 4.4. MITOGRAFIAK

Hirugarren testu motak, testu mitografioak lirateke. Aipagarriak dira *Mythographi I eta II*, nahiko goiztiarrak direnak eta Fulgencio-ren eta Servio-ren testuetan daude oinarrituak.<sup>83</sup> *Mythographi I*-ak berrehun eta hogeita bederatziz fabula aurkezten ditu; *Mythographi II*-ak, berriz, berrehun eta hirurogeita bost. Pasarte mitografikoak eta jainkoak laburki eta era soil batez daude azalduak, inolako komentario interpretatiborik gabe. Zentzu honetan Higinioren *Fabulae*-ren antza dute. Bi errepertorio hauek mitografo gehienek iturri izango dira, baita poetenak ere.<sup>84</sup>

Baina mota honetako obra garrantzitsuena *Mythographi III* deiturikoa izan zen, Alexander Neckham ingelesari ematen zaio obra honen autoretza. Liburu honetan 1200. urtean eskuragarri zegoen informazio osoa biltzen du. Goi Erdi Aroko eskuliburu puntakoena eta erabiliena izan zen, Petrarca-k ere erabili izan zuena.<sup>85</sup>

Batzuen ustez tratatugile hau Albricus-ekin erlazionatu daiteke, kronologikoki mende berdinean eta geografikoki Ingalaterran kokatu behar dena. Albricus-ek bere *Philosophi Liber Ymaginum Deorum* liburuan Fulgencioaren testuetan oinarritzen da, izaera moralizatzailea mantendu zuelarik. Idatzi hau ezin da *De imaginibus deorum libellus* liburuarekin nahastu, hau Albricus deituriko pertsona batek idatzia izan zela uste da. Oraindik ez dago argi bi Albricusak pertsona berdina diren edo bigarren liburuak beste autore bat duen. Hala ere Angelo Mai ikertzailearentzat bi tratatuak pertsona berarenak dira.<sup>86</sup> Lan honetan, bi lanak autore berarenak direnaren teoriari eutsiko diogu.

Bigarren idatzi honetan antzinaro berantiarreko eta aurreko Erdi Aroko zenbait idazleren material mitologikoa batzen ditu. Iturri funtsekoenak Fulgencio-ren *Mitologiak*, Servio-ren *Eneida-ren komentarioa*, Macrobio-ren *Saturnalia* eta *Escipion-en ametsaren komentarioa*,

---

<sup>83</sup> PANOFISKY, E.: *Estudios sobre...*, op. cit., 30.or.

<sup>84</sup> CROSAS LÓPEZ, F.: *De enanos y gigantes. Tradición clásica en la cultura medieval hispánica*. Madrid, Universidad Carlos III, 2010. 42. or.

<sup>85</sup> PANOFISKY, E.: *Estudios sobre...*, op. cit., 30.or.

<sup>86</sup> GONZÁLEZ DE ZÁRATE, J.M.: *Mitología e historia del arte. Tomo I: De caos y su herencia. Los Uránidas*. Madrid, Ediciones Encuentro, 2012. 67-68. or.

Isidoro-ren *Etimologiak* eta Remigio Auxerrekoak eginiko *Marziano-ren komentarioa* dira.<sup>87</sup> Interesgarria zaigu ere eman zitzaion ikuspuntuarengaitik: bere garaiko beste tratatu batzuen kontrara ez ditu planteamendu evemeristak jarraituko, ezta planteamentu moralizatzailekerik ere.<sup>88</sup>

Petrarca-k liburu hau bere liburutegian zuen eta bertatik atera zituen bere mitologiaren inguruko jakituria gehiena. *Afrika* deituriko epopeia latinoaren hirugarren kantua idazteko baliatu zuen. Lelio Numidas-eko erregearengana joan zen, Syfax deiturikoa; jauregiko harrera-gelan sartzen da, non hormetan Olinpoko jainkoen irudien dekorazioa dagoen. Petrarkak guztiak deskribatzen ditu 123 bertsoan, Albricusen liburuko indikazioak zehazki jarraituz. Jainko bakoitzaren izaera, janzkera eta atributuak deskribatzen baititu Albricusek.<sup>89</sup>

Liburu honek artista ugari inspiratu zituen, erreperitorio bezala eta ikonografiako manual bezala. Badaude eskuizkribuak Albricusen erarako jainkoen errepresentazioak dituztenak, ezagutzen diren zaharrenak *Paris 6986 kodizea* eta Christien Troyes-ekoaren *Ovidio Moralizatua* dira. Baditugu miniatura frantses, flandiar eta italiarrak eredu albriziatarraren difusioa eta egonkortzearen lekuko direnak. Miniatura hauen tipologiak kodifikatuak geratu ziren Albricusen liburuari esker.<sup>90</sup>

Hortaz, Albricusek sortutako tradizioak garrantzi handia izan zuen, Berpizkundearen aurrekari eta aitzindari izan zen eta. Liburu hau oinarri mitografiko izan zen humanistentzako (adibidez, Bocacciok erabili zuela badakigu); eta bere figurak prototipo izan ziren Quattrocento-ko artistentzat.<sup>91</sup>

---

<sup>87</sup> SEZNEC, J.: op. cit., 145.or

<sup>88</sup> ELVIRA BARBA, M.A.: po. cit., 34.or.

<sup>89</sup> SEZNEC, J.: op. cit., 145-146

<sup>90</sup> Ibid., 149-154

<sup>91</sup> Ibid.,154.or.

## 5. ONDORIOAK

Lanak helburu bezala, mitologia klasikoak Erdi Aroan zehar izan zuen nondik norakoaren azterketa egitea zuen, Erdi Aroan zehar eginiko mitologia klasikoaren errepresentazio motak aztertuz. Berpizkunderan emandako Antzinaroaren bat-bateko birsortzearen ideia erromantikoa hausteko asmoarekin, Berpizkunderak jasotako mitologia klasikoaren tipologia adierazgarriak ez baitziren zuzenean Antzinarotik eratorri, Erdi Aroan sortutako tipologiek ere eragina izan zuten.

Erdi Aroan eman ziren mitologia klasikoaren errepresentazioak bide ezberdinak izan zituen. Karolingiarren aldetik erakutsi da estetika klasikoa mantendu zutela, eta beraiek izan zirela bakarrak hau egiten. Jarraian erakutsi den bidea arabiarrek egindako interpretazioak izan dira. Arabiarrek, irudiak ekialdeko etikara moldatu zituzten, baita zientifikoki zehatzagoak egin. Ekialdeko irudi hauek berriro Europa mendebaldera itzultzean, XII-XIII. mendean, mendebaldeko estetika garaikide batera moldatu ziren.

Gainera, entziklopedia eta komentarioen bitartez erakutsi da tipologia guztiz berriak sortu zirela. Gai mitologikoak ez ezagutzeak eta eredu plastiko gabe lan egitearen ondorio izan zirenak. Mitografien bitartez mitologia klasikoko irudien sintetizazio bat erakutsi nahi izan da, Albricus-en testua izan zelarik sintetizazio honen muina. Berak sortutako tipologiak izan baitziren arrakasta eta zabalkunde handiena izan zutenak.

Klasizismoa Erdi Aroko pentsamenduaren lorategian gutxinaka loratzen joan zen. Italian, Antzinarotik gertuago zeudenez, forma klasikoek jarraikortasuna izan zuten. Horregatik eman zen bertan Berpizkundera, antzinaroarekiko lotura ez zelako inoiz hautsi. Italiatik kanpo, berriz, forma barbaro bitxi eta kargatuak aurkitzen ditugu, Erdi Aroko ispirituairen ezaugarri direnak.<sup>92</sup> Baina ikusten da nola forma klasiko hauek biziraun zuten Erdi Aroan, baina ezkutatuak, antzaldatuak. Erdi Aroan forma klasikoak oso eraldatuak aurkitzen baditugu ere, forma klasikoaren erabilera trakets hauek erakusten digute nolakoa izan zen Erdi Arotik Berpizkunderako trantsizioa.<sup>93</sup>

---

<sup>92</sup> HUIZINGA, J.: *El otoño de la Edad Media*. Madrid, Editorial Alianza, 2001. 416. or.

<sup>93</sup> *Ibid.*, 420. or.



## 6. ITURRI BIBLIOGRAFIKOAK

### 6.1. LIBURUAK

- CROSAS LÓPEZ, F.: *De enanos y gigantes. Tradición clásica en la cultura medieval hispánica*. Madrid, Universidad Carlos III, 2010.
  
- ELVIRA BARBA, M.A.: *Arte y Mito. Manual de iconografía clásica*. Madrid, Sílex, 2013.
  
- GARCÍA AVILÉS, A.: *El tiempo y los astros: arte, ciencia y religión en la Alta Edad Media*. Murcia, Universidad de Murcia, 2001.
  
- GONZÁLEZ DE ZÁRATE, J.M.: *Mitología e historia del arte. Tomo I: De caos y su herencia. Los Uránidas*. Madrid, Ediciones Encuentro, 2012.
  
- HUIZINGA, J.: *El otoño de la Edad Media*. Madrid, Editorial Alianza, 2001.
  
- KATZENSTEIN, R. eta SAVAGE-SMITH, E.: *The Leiden Aratea. Ancient Constellations in a Medieval Manuscript*. Malibu, The J. Paul Getty Museum, 1988.
  
- MORÁIS MORÁN, J.A.: *Roma en el Románico. Transformaciones del legado antiguo en el arte medieval. La escultura hispana: Jaca, Compostela y León (1075-1150)*. Extremadura, Universidad de Extremadura, 2013
  
- PANOFSKY, E.: *Renacimiento y renacimientos en el arte occidental*. Madrid, Alianza Editorial, 1960.
  
- PANOFSKY, E.: *Estudios sobre iconología*. Madrid, Alianza Editorial, 1972.



- PANOFSKY, E. eta SAXL, F.: *Mitología clásica en el arte medieval*. Madrid, Sans Soleil, 2016.

- SEZNEC, J.: *Los dioses de la antigüedad en la Edad Media y el Renacimiento*. Madrid, Taurus, 1983.

## 6.2. ARTIKULUAK

- BURGESS, R. W.: “The Chronograph of 354: Its Manuscripts, Contents, and History”, *Journal of Late Antiquity*, 5. zbk., 2013, 345-396. or.

- DOMÍNGUEZ RODRÍGUEZ, A.: “Astrología y mitología en los manuscritos ilustrados de Alfonso X El Sabio”, *En la España medieval*, 30. zbk., 2007, 27-64 or. <https://revistas.ucm.es/index.php/ELEM/issue/view/ELEM070711> (2020.02.24 kontsultatua)

- FERNÁNDEZ FERNÁNDEZ, L.: “La octava esfera o la esfera de las estrellas fijas”, *Revista Digital de Iconografía Medieval*, 2 zbk., 2010, 41-51 orr. <https://www.ucm.es/bdiconografiamedieval/numero-3> (2020.01.05 kontsultatua).

- SAYÁNS GÓMEZ, F.: “El ciclo de Casiopea en los manuscritos latinos medievales”, *Revista Digital de Iconografía Medieval*, 18 zbk., 2018, 99-128 orr. <https://www.ucm.es/bdiconografiamedieval/numero-19> (2020.02.11 kontsultatua).

- STRANO, S.: “En torno a las catacumbas cristianas de Roma: historia y aspectos iconográficos de sus pinturas”, *Boletín de Arte*, 26-27. zbk., 2005-2006, 17-35 orr.

- TALAVERA ESTESOR, F.J.: “Tradición clásica y mitografía: pervivencia del mito de Cibeles en algunos textos latinos de la Edad Media del Renacimiento” *Revista de Estudios Latinos (RELat)*, 5 zbk., 2005, 225-244. orr.